

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1248

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira kimika-sektoreko zenbait instalazioen ingurumen-baimen integratuen berrikuspen-espedienteak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta horiek funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihesteko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, poluzioa prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta poluzio hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, Ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ofizioz berrikus daitezela ingurumen-baimen integratuak, instalazio baten jarduera nagusia aintzat hartuta teknika eskuragarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratu izanaren ondorioz. 2022ko abenduaren 12an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2022ko abenduaren 6ko 2022/2427 Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira sektore kimikoan hondakin-gasak tratatzeko eta kudeatzeko sistema komunetarako teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Industriako Isurpenen Erregelamenduaren eta Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 16. eta 15. artikuluek arautzen dute berrikusteko prozedura, eta gutxienez hogeit hamar eguneko jendaurreko informazio-aldia ezartzen dute horren barruan.

Horregatik guztiagatik, jendaurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espedienteak, hogeit hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharra aurkez daitezela. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 6a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

SEKTORE KIMIKOKO INSTALAZIOAK, ZEINEN BERRIKUSPEN-ESPEDIENTEAK JENDAURREAN JARTZEN BAITIRA

Espedientea	Ingurumen-baimen integratuaren titularra	Herria/Udalerria
AAI00031_REV_2025_001	Acideka, S.A.	Lantarón
AAI00078_REV_2025_001	Faes Farma, S.A.	Leioa
AAI00080_REV_2025_001	Feralco Iberia, S.A.	Alegia
AAI00131_REV_2025_001	Bionor Berantevilla, S.L.U.	Berantevilla
AAI00181_REV_2025_001	Bakelite Ibérica, S.A.	Lantarón
AAI00345_REV_2025_001	Química Europea de Resinas, S.A.	Oyón-Oion